

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA / SEGMENTACIÓN DE MERCADO

Gure enpresaren bezeroak nagusiki bidaiatzen duten pertsonak izango dira, bai bere lanak behartzen dutelako, bai gustoko dutelako. Produktu hau izugarri lagunduko du beste hizkuntzetan ulertzeko arazoak ez izateko, horrela bidaia erraztuko du, beste herrialdeetako pertsonekin elkarrizketak izateko, kultura benetan ezagutzeko.. Beraz, gure bezeroak atzerriko hizkuntzan komunikatu behar diren pertsona horiek izango dira.

Produktu hau aukeratuko dute gure egunerokoan ematen dizkiguten erraztasun ugariengatik, hizkuntzen ezagutza oso garrantzitsua delako. Halaber, produktu erabilgarria da, eta gainean erraz garraiatzen da, ez baitu leku handirik hartzen, txikia delako. Produktu jasagarria denez, (karbonoz, aramida-zuntzez, beira-zuntzez eta termoplastikoz eginak daude), sortzeko erabiltzen diren materialen ondorioz, gailu perfektuak egiten du.

Merkatu estragiari dagokionez, nahi dutenak erosi dezake produktua soilik erosteko ahalmena izaten badute, egunerokotasunean oso baliagarria delako baina nagusiki, esan dugun bezala, bidaiatzen dutenei zuzenduta dago, erebai, kontuan hartu behar dugu gure bezeroen errenta maila, normalean klase ertaina - goi klasea izango dira gure bezeroak, horregatik marketin kontzentratua estrategia erabiliko dugu.